




Denbora-

1 Labirintoa

Bikotekidearekin elkartu nahian dabil
Klaudia arraina, baina ez daki zein bide

hartu behar duen.

Lagunduko al
diozu?



$$\text{orange} \times 3 + \text{banana} \times 5 + \text{orange} \times 7 =$$

$$\text{cherries} \times 6 + \text{orange} \times 4 + \text{banana} \times 3 =$$

$$\text{orange} \times 4 + \text{banana} \times 7 + \text{cherries} \times 2 =$$

3 Erosketak

Gereziak, bananak, mandarinak eta
sagarrak erosi ditu Uxuek azokan. Fruta
bakoitzaren prezioa kontuan
hartu, eta egin eragiketak.

2 Zazpi aldeak


Edurne Zuriren etxean
erratza pasatzen ari den
ipotxaren argazkia da
hauxe. Zazpi gauza
aldatu ditugu. Zer?



- pasak



4 Giltza

Hamaika giltza izaten du eskolako begiraleak poltsikoan. Bi, ordea, berdinak dira. Zein?



5 Kopiatu laukiz lauki

Izaskunen urtebetetze egunerako egun gutxi geratzen direla eta, kartela prestatzen hasi dira lagunak. Kartel berdina marraztuko al duzu zuk?




Jolasa


Olohu

Eguraldi ona hasi denez, hondartzan edo hondarretan jolasteko ariketa proposatuko dizuegu aste honetan. Jatorriz, Hawaiiiko uharteko jolasa da

1 Hondartza, ibaiaren ertza edo hondarrezko gune lau bat bilatu behar da jolas honetan aritzeko. Non jokatu aukeratu ostean, sartu bi makila hondarretan. Utzi tartetxo bat makila batetik bestera.




2 Markatu jaurtitzeko tokia, makilak dauden lekutik hiru bat metrora.



3 Leku horretatik jaurtiko ditu jokalariak diskoak. Helburua: diskoa bi makilen artean pasatzea. Helburua betetzen ez bada, jaurtiketak ez du balio.



4 Jokalariak huts egiten badu edo diskoa makiletara iritsi baino lehen erortzen bada, beste aukera bat izango du. Kasu horretan, diskoa erori den tokitik egingo du jokalariak bigarren jaurtiketa.



5 Hasieran, makilen arteko tartea handiagoa izan daiteke, martxa hartu arte. Denborarekin, baina, makilen arteko tartea txikituko dugu, eta bidean hainbat oztopo jarriko ditugu.